



## **Lehiaren Euskal Agintaritzak futboleko lehiari buruzko azken txostenak landuko ditu jardunaldi batean**

---

Alba Urresola Lehiaren Euskal Agintaritzako presidentek adierazi duenez, futbola, jarduera ekonomiko gisa, lehiaren araudiaren mende dago, eta ikus-entzunezko eskubideen kudeaketaren mende, batez ere

Javier Tebas LaLigako presidentek eta Andreu Camps Espainiako Futbol Federazioko idazkari nagusiak “Lehiaren Zuzenbidea eta erronka berriak futbol profesionalean pandemiaren aurrean” jardunaldian hartu dute parte

Finantza arloko fair play-ak eta Ikus-entzunezko eskubideek zentratuko dituzte eztabaidarako bi mahaia

---

**BILBON, 2020ko azaroaren 26an / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) lehiaren ikuspuntutik aztertu ditu finantza arloko fair play-a eta ikus-entzunezko eskubideak, San Mamesen egin den “Lehiaren Zuzenbidea eta erronka berriak futbol profesionalean pandemiaren aurrean” jardunaldiaren barruan.**

Alba Urresola Lehiaren Euskal Agintaritzako presidentek eta Aitor Elizegi Athletic Clubeko presidentek, eztabaidarako mahaien aurreko aurkezpen instituzionala egin dute. Ikus-entzunezko eskubideak batera merkaturatzeko baldintzen eta eskubide eskusiboak kudeatzeko moduaren berme-emaila gisa lehiaren agintaritzek duten rola azpimarratu du Alba Urresolak bere aurkezpenean, plataforma handien bitartez digitalizatzeko gero eta joera handiagoa duen kontsumoaren aurrean, batez ere.

Jardunaldian agerian geratu da futbolarik jarduera ekonomiko gisa duen garrantzia. Oso sektore arautua da, eta, gainera, Lehiaren araudiari lotuta dago. Hori dela eta, jardunaldian zehar, Lehiak gai horri buruz egin dituen azken txostenak landu dira.

Lehenengo mahaia “Finantza arloko fair play-a futbol taldeetan COVIDaren eta haren ondorioen aurrean” gaian zentratu da, eta hauek hartu dute parte: Javier Tebas LaLigako presidentek; Jon Berasategi Athletic Clubeko Zuzendari Nagusiak; eta Juan Luis Crucelegui Nazio Batuen Erakundeko Lehia Politiken eta Kontsumitzaileen Babes Saileko buruak.

Jardunaldiaren bigarren zatian “Ikus-entzunezko eskubideak” aztertu dira, hauen partaidetzarekin: Andreu Camps Espainiako Errege Futbol Federazioko Idazkari Nagusia; Javier Tebas LaLigako presidentea; Maria Tato Espainiako Errege Futbol Federazioko Emakumeen Futboleko Zuzendaria;



eta Amaia Gorostiza Eibar S.A.D. Kirol Elkarteko presidentea.

**Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz**

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duen erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren jarduketara ekonomikoari dagokienez.